

## Eta hasi dira gauzak gertatzen

“CANeko ARDURADUNAK auzitegien arriskutik libre direla ematen du. Bestelako ardurak, berriz, haizeak eraman ditu. Nafarroako Kutzaren galera foru erkidegoko historia garaikideko lurrikara politikorik handienetakoa izan da, baina haren protagonistei ez die ikara horrek min handirik egin”.

Horrela bukatu du Joxerra Senar *Berriako* kazetariak ikerketa eta dokumentazio lan handi hau. Esaldia, baina, hauteskundeentz emaitzak eta ondorioak jakin gabe idatzia dago. Orain ere hala ote da? Ez, jadanik esan liteke zerbait gertatu dela, besteak beste, UPNk Nafarroako Gobernu galdu du. Eta Nafarroako Legebiltzarreko ikerketa batzordeak urte hasieran ateratako ondorioetan, hurrengo legealdian ikerketarekin jarraituko zuela iragarri zuen. Oraindik, beraz, bada aukerarik erantzukizunetan aurrera egiteko. Legebiltzar eta Gobernu berrien ardura da ikerketarekin jarraitzea, ahal den neurrian liburu honen titulua gezurtatzen jarraitzeko.

Nafarroako Kutzaren sustraietatik hasi eta duela lau egun arte aurrezki kutxak izandako bilakaera jasotzen du Senarrek liburuan, Caixabankek Kutxa irentsi arte klabe garrantzitsuenak eskainiz. Liburu batez ere azken 15 urteetan oinarritua dago, baina garrantzitsuak dira gako historiko horiek, horrela

h o b e t o  
u l e r t u k o  
b a i t i r a  
2000. urte-  
tik aurrera  
gertatuta-  
koak, fun-  
tsean nola  
ihes egiten  
den etenga-  
be beste euskal aurrezki kutxetatik, Espainiako Estatu-  
ko bestelako aliantzetan murgildu eta itotzeraino.

Miguel Sanz eta Enrique Goñi buru dituen Nafarroako Kutzak eta bere Korporazioak azken 15 urteetan emandako urratsak xehetasun handiz arakatu eta azaltzen ditu Senarrek. Estatuak, UPNk, PSNk eta Nafarroako enpresari boteretsuenek Nafarroa nola kontrolatu eta zurrupatu duten ulertuko du lerro hauetan murgiltzen denak.

Adi baina, liburuari ekiten dionak badu arriskurik: datu, azalpen, argudio eta, oro har, kontakizunaren sarean harrapatua gelditzearena. ■

### Ustelkeria

*CAN: eta hemen ez da ezer gertatu*

Joxerra Senar  
Pamiela, 2015



**Xabier Letona**

## Abuztuko zitak Easo Hirukotearekin

MILA AUKERA INTERESGARRI aurki ditzakegu uda honetan musika klasikoaz disfrutatzeko, baina guztien artean Easo Hirukoteak eskainiko duen kontzertua, Musika Hamabostaldiko “Hamabostaldi Ibiltaria” izeneko zikloan, ez nuke galduko. Arrazoi askorengatik. Hasteko, talde honetako kideen kalitate musikala frogatuta dago. Miren Urbietta sopranoa, Arkaitz Mendoza piano eta organo jolea eta Erlantz Fernandez tronpetista musikari gazteak izan arren, badute karrera arrakastatsua atzetik. Bestalde, egitarau zinez erakargarri eta dotorea eskaintzen dute, barroko garaian kokatua. Aria zoragarriak entzun ahal izango ditugu Miren Urbietaren ahotik, besteak beste, *When I am laid in earth* Henry Purcell-en *Dido eta Aeneas* operakoa, *Destero dall'empia dite*, Haendel-en *Amadigi di*



### Musika klasikoa

*Easo Hirukotea*  
*Musika Hamabostaldian*

**Noiz:** Abuztuak 8, 12 eta 17an.

**Non:** Araian, Mutriku eta Amurrian.

*Gaula* obrarena, edo *Let the bright Seraphim*, konpositore berberaren *Samson* operatik ateratakoa; organoan, Arkaitz Mendozak Bach-en *Preludio eta Fuga BWV 857* joko digu, edo Scarlatti-ren Sonata pare bat, hain freskoak izaten direnak. Tronpetak ere bere banakako tartea izango du, Scarlatti-ren hiru aria joaz.

Baina arrazoi musikaletatik aparte, badago beste arrazoi bat emango dituzten hiru kontzertuen gutxienez bat aukeratzeko. Araia, Mutriku edo Amurrio bisitatzeko parada izango dugu, eta hori beste eragingarri bat da. Gogoratu ezazue, abuztuaren 8an Araian, 12an Mutriku eta 17an Amurrian, musika ona entzuteko aukera paregabea izango dugula. ■

**Montserrat Auzmendi**